

8

Euskara Batuaren pertzepzioa Ipar Euskal Herrian¹

Eztitxu Harignordoquy

UPV/EHU – Euskal Herriko Unibertsitatea.

Euskal filologia eta hizkuntzalaritzako masterra.

eztitxu.laka@gmail.com

Sarrera-data: 2013-09-30 / Onartze-data: 2013-12-30

Laburpena. Euskal Herrian euskara batuaren pertzepzioa zer-nolakoa den hautematea izan da artikulua honetan aurkezten den ikerketaren helburua. Pertzepzio horrek berebiziko garrantzia izango duela uste dugunez, ezaugarri desberdineko hiru herritan egin dugu ikerketa: Baigorri, Senperen eta Maulen. Ikerketa galdetegi bitartez bildutako datuen bitartez burutu da. Elkarrizketatuen artean euskaraz hitz egiten eta ez dutenak daude, adin desberdinetakoak eta langile zein laborariak daude. Bestalde, hiru kolegioetan galdetegi pasa den arren horietako bitako datuak hartu dira kontuan. Artikuluan beraz, ikerketa horren emaitza aurkeztuko da. • **Hitz-gakoak:** *Euskara batua, euskalkia, tokian-tokiko hizkuntza, zuzentasun linguistikoa*

Abstract. The aim of the research presented in this article is to detect what kind of perception is held about standard or unified Basque in the Continental Basque Country. As we believe that this perception is crucially important, we carried out the research in three towns with different characteristics: Baigorri, Senpere and Maule. The research was conducted by means of data gathered through questionnaires. Among those interviewed are people who speak Basque and those who do not, people of different ages, and workers as well as farmers. In addition, although the questionnaire was sent out to three schools, the data from only two of them have been taken into consideration. So this article will be presenting the results of that piece of research. • **Key words:** *Standard (unified) Basque, Basque dialect, local language, language accuracy*

SARRERA

I

Lehenik, Ipar Euskal Herriko euskararen eta batuaren egoera azalduko dugu, erakusteko zergatik pentsatu dugun garrantzitsua eta interesgarria izan daitekeela gai hau aztertzea. Horrentzat, aipatuko ditugu Eusko Jaurlaritzak 2006an eta 2011an argitaratu dituen IV. eta V. inkesta soziolinguistikoak.

Elebidunen kopurua apaltzen ari da Ipar Euskal Herrian, baina handitzen hasi da 16-24 urte arteko gazteen artean. Gaur egun, Ipar Euskal Herrian, 6.774 pertsonak euskara ikasi dute, hau da, 1991. urtean baino 5.000 pertsona gehiago. Horrez gain, jakin behar da Lapurdi barrualdeko eta BAB guneko biztanle gehienek lehen hizkuntza frantsesa dela.

Euskararen erabilera ere apaldu da Ipar Euskal Herrian. Euskara frantsesa bezainbat erabiltzen dutenak oso gutxi dira: gaur egun %9,6 dira, aldiz 1991an, %13,3 ziren. Euskara erabilia da gehienbat lagun artean eta etxean, eta gutxienek leku publikoetan.

Euskararen aldeko jarrerak gazteen artean dira batez ere. Ipar Euskal Herriko biztanleriaren %19ak nahi du haien haurrek euskaraz ikasi dezaten (Ikastoletan), eta %34ak elebidunean (euskara eta frantsesa).

Euskara batuaren egoera aipatuko dugu Ipar Euskal Herriko probintzia bakoitzean, arlo desberdinetan. J.L. Davant-ek (1996) aztertu du euskara batuaren egoera Nafarroa Beherean eta Lapurdin:

- Prentsan, irratan, telebistan, eta liturgian, nafar-lapurtera gehienbat erabiltzen da. Literaturan, kantuetan eta bertsoetan aldiz, euskara batua da gehienbat erabiltzen.
- Irakaskuntzan, egoera desberdintzen da tokiaren arabera, eskolen arabera, eta irakasleen eta ikasleen euskara mailaren arabera.

J.B. Coyos-ek (2004) aztertu du euskara batuaren egoera Zuberoan:

- Prentsan, telebistan eta literaturan, zuberera oso gutxi erabilia da, eta euskara batua erabiltzen da batez ere.
- Tokiko irratan, liturgian eta irakaskuntzan aldiz, zuberera erabiltzen da. Irakaskuntzan, euskara batua oso gutxi erabiltzen da.

Euskararen eta batuaren egoera ikusi eta gero Ipar Euskal Herrian, konturatzen gara interesgarria litekeela aztertzea jendeak gai honetaz zer dakien eta zer pentsatzen duen. Ipar Euskal Herrian, euskara batua askotan ikusia izan da Hego Euskal Herriko berezitasun bat bezala, nahiz eta Iparraldean ere erabilia den.

***Elebidunen
kopurua apaltzen
ari da Ipar
Euskal Herrian,
baina handitzen
hasi da 16-24
urte arteko
gazteen artean.***

***Ipar Euskal
Herrian, euskara
batua askotan
ikusia izan da
Hego Euskal
Herriko
berezitasun bat
bezala, nahiz eta
Iparraldean ere
erabilia den.***

2. METODOLOGIA

I

2.1 Herriak

Hiru herri aukeratu dira Ipar Euskal Herri osoan, herri bat probintzia bakoitzean.

- Nafarroa Beherean: Baigorri eta inguruak.
- Lapurdin: Senpere eta inguruak.
- Zuberoan: Maule eta inguruak.

Hiru herri baizik ez dira aukeratu Ipar Euskal Herri osoan, arrazoi desberdinengatik. Lehenik, hiru herri hauek aukeratu dira hizkuntzaren aldetik desberdintasun handienak agertzen direlako herri hauen artean. Probintzi bakoitzean herri bakar bat aukeratu da, errazagoa delako herri “nagusi” batean lekukoak aurkitzea, herri txiki askotan baino. Halere, askotan, eta batez ere Zuberoan, inguruko herrietan ere lekukoak bilatu dira, garrantzitsua delako ahal bezain ongi irizpide sozialen errespetatzea. Lapurdin, Senpere aukeratu da, kostaldetik eta mugatik gertu delako. Orduan, bere kokapenarengatik, suposatzen da Senperen euskara batuz gehiago hitz egiten dela, edo gehiago entzuten dela. Nafarroa Beherean, Baigorri aukeratu da Nafarroa Behereko Hegoaldean delako, eta inguruko herrietako erdialdea delako. Azkenik, Maule aukeratu da Zuberoako erdialdea delako. Halere, herri hauetako inguruetan ere jendea elkarrizketatu da, askotan hiru herri hauetan ezin izan direlako lekuko guztiak aurkitu. Baigorriko inguruetan, Bankan, Alduden, eta Urepelen. Senpereko inguruetan, Azkainen eta Saran. Azkenik, Maulen bertan oso zaila izan denez lekuko asko aurkitzea, inguruko herrietan elkarrizketak egin izan dira batez ere (Muskuldi, Gamere, Sohuta, etab.).

2.2 Lekukoak

Hiru lekuko mota elkarrizketatu dira inkesta honetan. Lehenik, euskaldun zaharrak, lehenago aipatu hiru herrietan. Gero, euskaraz hitz egiten ez duten pertsona batzuk, baina hizkuntzari buruz informatuak direnak elkarrizketatu dira. Azkenik, kolegioetako ikasle batzuk elkarrizketatu dira, 11-13 urte artekoak. Interesgarria izaten da aztertzea adin horretako gazteen iritzia gai honi buruz, gerorako pentsamoldeak eta egoera, haiek dituztelako aldatuko.

2.2.1 Euskaldun zaharrak

Inkesta hau egin izan da faktore sozial batzuen arabera : lanbidea,

adina, ikasketak, generoa, geografia eta jendea edo haien familia ikastolarekin harremanetan den edo ez.

Lehenik, lekukoaren lanbidearen arabera erantzunak aldatzen diren edo ez aztertu nahi izan da inkesta honetan. Ipar Euskal Herrian, laborantza munduak leku handia hartzen du. Laborarien erantzunak konparatu dira beste lanbideak dituzten lekukoekin.

Gero, lekukoaren ikasketa mailaren arabera erantzunak aldatzen diren edo ez aztertu nahi izan da. Ikasketa maila handia eta txikia dutenen artean konparaketak egin dira.

Bestalde, generoak ere konparatu dira, ikusteko emazte eta gizonen artean desberdintasunik agertzen den erantzunetan.

Adinaren araberako konparaketak ere egin nahi izan dira inkesta honetan. Adin desberdinetako pertsonak ez dute harreman berdina izan euskararekin haien bizitzan, eta honek haien euskara batuari buruzko ikuspegia aldatu dezake. Inkesta honetan hiru adin talde desberdinak dira: 18-30 urte artekoak, 31-60 urte artekoak, eta 61 urtetik gorakoak.

Azkenik, inkestak hasi eta gero, beste faktore sozial baten gehitzeko beharra agertu da. Alabaina, inkestak egiterakoan, argia izan da Ikastolatik pasa den pertsona batek, edo familia Ikastolan duen pertsona batek, ez duela euskara batuari buruzko ikuspegi berdina, Ikastolatik pasatu ez den pertsona bati konparatuz, edo familia Ikastolan ez duen pertsona bati konparatuz. Beraz, nahiz eta ez den erraza izan zehazki errespetatzea, saiatu gara gutxi gora behera lekukoaren erdia Ikastolarekin harremanetan dena izatea, eta beste erdia ez dena harremanetan izatea.

Faktore sozial guzti hauek kontuan hartuz, lekukoaren taula bat egin da euskaldun zaharren inkesta antolatzeke:

1. taula. Inkestan parte hartu dutenen ezaugarriak

	ADINA	18-30		31-60		61 >	
LANBIDEA	IKASKETA-MAILA	GENEROA*					
		G	E	G	E	G	E
Langile	Handia	1	1	1	1	1	1
	Txikia	1	1	1	1	1	1
Laborari	Handia	1	1	1	1	1	1
	Txikia	1	1	1	1	1	1

*G: gizon, E: emakume

Hiru herrietan 24 pertsona elkarrizketatu dira, eta orduan guztira, 72 pertsona.

2.2.2 Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak

Hiru herrietan, euskaraz hitz egiten ez duen pertsona bati galdetu zaio zer pentsatzen duen euskara batuari buruz. Pertsona hauek, nahiz eta euskaraz hitz egiten ez jakin, hizkuntzari buruz informazio pixka bat jakin behar izan dute.

2.2.3 Kolegioetan banatutako inkestak ikasleei

Ipar Euskal Herrian, hiru kolegio badaude, Seaskakoak (Ikastolak): Lartzabalen, Kanbon, eta Ziburun. Lartzabale eta Ziburuko kolegioak aukeratu dira inkesta honen egiteko, bi kolegio hauetako ikasleen hizkera gehienik desberdintzen delako. Lartzabale Nafarroa Beherean dago, Zuberoatik gertu. Kolegio honetako ikasleak Nafarroa Beheretik datoz, bai eta ere Zuberoatik. Ziburu aldiz, kostaldean dago, mugatik gertu. Kolegio honetako ikasleak kostaldetik datoz, bai eta ere Hego Euskal Herritik. Logikoa litzateke Ziburun, euskara batua gehiago erabiltzen edo entzuten dela, eta Lartzabalen, gutxiago. Orduan, interesgarria da ikertzea bi kolegio hauetako ikasleek euskara batuari buruz zer pentsatzen duten.

Miarritzeko kolegio pribatu batean inkesta berdinak egin dira, BAB-ko kolegio elebidunetan diren ikasleen egoera eta Ikastolako ikasleen egoera oso desberdinak direlako euskararen mailaren aldetik. Baina hain desberdinak diren, erabakia izan dela Miarritzen egin inkesta hauek lan honetik kanpo egonen zirela, ikasleek ez zekitelako euskara batua zer zen. Orduan, ez dute jakin inkesta honi behar bezala erantzuten.

Orduan, Lartzabalen eta Ziburun egin izan diren inkestak baizik ez dira kontuan hartu lan honetan. Lartzabalen, inkesta egina izan da 5. mailako (11-13 urte arteko gazteak) 35 gazteei, eta Ziburun, 52 gazteei. Guztira, 87 ikasleei inkesta hau eman zaie.

2.3 Galdetegia

Ikerketa lan honetan, hiru galdetegi desberdin egin dira. Lehen galdetegi bat egin da euskaldun zaharrentzat. Bigarren galdetegi bat egokitu da euskaraz hitz egiten ez dakiten hiru pertsonentzat. Azken galdetegi bat egin da kolegioetako ikasleei banatzeko.

2.3.1 Euskaldun zaharrei egin galderak

Euskaldun zaharrei egin galderak bi taldetan banatu dira. Lehenik, euskara batua dagoela badakitenei eginak, eta beste alde batetik, euskara batua dagoela ez dakitenei eginak direnak.

**Inkesta hau
egina izan da
Baigorriko,
Senpereko eta
Mauleko 72
euskaldun
zaharrei.**

2. taula. Euskara batua dagoela badakitenei egin galderak

- Ba al dakizu euskara batua badela ?
- Entzuten duzu jendea batuaz hitz egiten zure herrian ?
- Batuaz nork hitz egiten du zure herrian?
- Ba ote da batuaren beharrik euskaldunok elkar ulertzeko?
- Ulertzen duzu euskara batua?
- Euskal telebista eta Berria egunkaria ulertzen dituzu?
- Batua euskara zuzena da zure ustez?
- Beharrezko ikusten duzu euskara batua izatea?
- Ikastoletan eta gau eskoletan, nola irakastea hobe dela uste duzu?
- Erabiltzen ote duzu euskara batua?
- Noiz erabiltzen duzu euskara batua?

Inkesta egin baino lehen, lekukoei galdetu zaie badakitenez edo ez euskara batua dagoela. Ez zekitenei esplikatzen zaie zer den euskara batua, bai eta ere bere funtzioak. Honi esker, haien iritzia bildu da.

3. taula. Euskara batua dagoela ez dakitenei egin galderak

- Ba al dakizu euskara batua badela ?
- Entzuten duzu jendea batuaz hitz egiten zure herrian ?
- Batuaz nork hitz egiten du zure herrian?
- Beharrezko ikusten duzu euskara batua izatea?
- Ikastoletan eta gau eskoletan, nola irakastea hobe dela uste duzu?
- Gauza ona dela uste duzu euskara batua izatea?
- Ulertzen duzu Euskal Telebistako euskara?

4. taula. Euskaraz hitz egiten ez duten pertsoneri egin galderak

- Ba al dakizu euskara batua badela ?
- Batuaz nork hitz egiten du zure herrian?
- Ba ote da batuaren beharrik euskaldunok elkar ulertzeko?
- Beharrezko ikusten duzu euskara batua izatea?
- Ikastoletan eta gau eskoletan, nola irakastea hobe dela uste duzu?

Elkarrizketatutako pertsonen %82ak badaki euskara batua dagoela.

5. taula. Kolegioetan egin inkesta

- Ba al dakizu euskara batua badela?
- Entzuten duzu jendea batuaz hitz egiten zure herrian?
- Zure ustez, batuaz nork hitz egiten du zure herrian?
- Ba ote da euskara batuaren beharrik euskaldunok elkar ulertzeko?
- Ulertzen duzu euskara batua?
- Euskal telebista ulertzen duzu?
- Beharrezko ikusten duzu euskara batua izatea?
- Zer erabiltzen duzu kolegioan: euskara batua edo etxeko euskara?
- Kolegiotik kanpo, euskara batua ere erabiltzen duzu? edo beti etxeko euskara erabiltzen duzu?

2.4 Datuen ustiaketa

Lana sinplifikatzeko, elkarrizketa guztiak grabatu dira Audacity programarekin, ordenagailu batekin. Elkarrizketa guztiak ortografikoki transkribatu eta gero, datu guztiak Microsoft Office Access 2007 programan ezarri dira. Honi esker, grafikoak atera ahal izan dira, deskribaketak eta ondorioak ateratzeko.

3. EMAITZAK

I

3.1 Euskara batuaren pertzepzioa Baigorriin, Senperen eta Maulen


Atal honetan, ikerketa lanaren lehen inkesta mota, eta handiena, azalduko da. Inkesta hau egin da Baigorriko, Senpereko eta Mauleko 72 euskaldun zaharrei. Atal honetako parte bakoitza galderen bidez banatua da. Orduan, atal honek 13 parte nagusi dauzka.

3.1.1 *Ba al dakizu euskara batua badela ? (denei zuzendutako galdera)*

Guztira, elkarrizketatutako pertsonen %82ak badaki euskara batua dagoela. Baigorriin eta Senperen elkarrizketatutako gehiengoak badaki, eta Maulen pertsona guztiek dakite.

3.1.2 *Entzuten duzu jendea batuaz hitz egiten zure herrian? (denei zuzendutako galdera)*

1. irudia. Euskara batuaz entzuten duten pertsona-kopurua



Elkarrizketatutako pertsonen gehiengoak, %81ak, ez du entzuten jendea batuaz hitz egiten herrian.

Elkarrizketatutako pertsonen gehiengoak, %81ak, ez du entzuten jendea batuaz hitz egiten herrian.

Beste herriei konparatuz, Senperen du jende gehienak entzuten jendea batuaz hitz egiten herrian, eta Maulen gutxienak. Senperen %33ak entzuten du, Baigorri %17ak eta azkenik, Maulen %8ak.

3.1.3 Batuaz nork hitz egiten du zure herrian? (denei zuzendutako galdera)

Elkarrizketaturako pertsona guztien artean, %51ak dio Ikastolatik etortzen diren gazteek dutela batuaz hitz egiten, %34ak dio euskaldun berriek dutela hitz egiten, %22ak ez daki galdera honi erantzuten, %18ak dio gazteek dutela hitz egiten, %4ak dio herrian bizi diren hegoaldetarrak dutela hitz egiten, eta beste %1ak dio ez duela inork hitz egiten.

3.1.4 Ba ote da batuaren beharrik euskaldunok elkar ulertzeko? (euskara batua badagoela dakitenei zuzendutako galdera)

Elkarrizketatutako pertsonen gehiengoak, %64ak, pentsatzen du euskara batua beharrezkoa dela elkar ulertzeko. %34ak dio ez dela beharrezkoa, eta azken %2ak ez daki galdera honi erantzuten.

Hiru herriei konparatuz, Senperen du jende gehienak pentsatzen euskara batua beharrezkoa dela elkar ulertzeko, eta Maulen gutxienak. Alabaina, Senperen, %78ak dio beharrezkoa dela, eta %22ak dio ez dela beharrezkoa. Baigorri, %71ak dio beharrezkoa dela, eta %29ak ez dela

**%64ak,
pentsatzen du
euskara batua
beharrezkoa dela
elkar ulertzeko.**

beharrezkoa. Maulen aldiz, erdiak dio beharrezkoa dela elkar ulertzeko, %46ak dio ez dela beharrezkoa, eta %4ak ez daki galdera honi erantzuten.

3.1.5 Ulertzen duzu euskara batua? (euskara batua badagoela dakitenei zuzendutako galdera)

Euskara batua badagoela dakitenen artean, %59ak ulertzen du, %24ak gutxi gora behera, %10ak pixka bat, %5ak ez du ulertzen, eta azken %2ak ez daki ulertuko lukeen edo ez, ez duelako inoiz entzun.

3.1.6 Euskal telebista eta Berria egunkaria ulertzen dituzu? (euskara batua badagoela dakitenei zuzendutako galdera)

Euskara batua badagoela dakitenen artean, %44ak euskal prentsa gutxi gora behera ulertzen du, %24ak pixka bat, %22ak ulertzen du, %8ak ez du ulertzen, eta azken %2ak ez daki ulertuko lukeen edo ez.

3.1.7 Batua euskara zuzena da zure ustez? (euskara batua badagoela dakitenei zuzendutako galdera)

Euskara batua badagoela dakitenen artean, %54ak dio batua euskara zuzena dela, %31ak ez daki galdera honi erantzuten, eta %15ak dio ez dela beti zuzena.

Baigorri eta Senpereko erantzunak berdintsuak dira, aldiz Maulekoak desberdintzen dira. Alabaina, Baigorri eta Senperen, gehiago dio batua euskara zuzena dela. Baigorri, %65ak hori dio, eta Senperen, %67ak. Maulen aldiz, %46ak ez daki galdera honi erantzuten, %38ak dio zuzena dela, eta %17ak dio ez dela beti zuzena.

3.1.8 Beharrezko ikusten duzu batua izatea? (denei zuzendutako galdera)

Hiru herrietan elkarriketatutako pertsonen artean, %78ak beharrezkoa ikusten du, %14ak ez du beharrezkoa ikusten, eta %8ak ez daki galdera honi erantzuten.

Baigorri, %96ak dio beharrezkoa dela, eta Senperen, %79ak. Azkenik, Maulen, %58ak beharrezkoa ikusten du, %38ak ez du beharrezkoa ikusten, eta %4ak ez daki galdera honi erantzuten. Orduan, konturatzen gara Maulen, beste herriei konparatuz, jende askoz gehiago ez duela beharrezkoa ikusten euskara batua izatea.

3.1.9 Ikastoletan eta gau eskoletan, nola irakastea hobe dela uste duzu? (denei zuzendutako galdera)

Elkarriketatutako pertsonen gehiagoak pentsatzen du irakaskuntzan

lekuko euskara eta batua erabili behar direla. Alabaina, %42ak hori pentsatzen du, %24ak pentsatzen du lekuko euskarari garrantzi handiena eman behar zaiola, batua ere pixka bat sartuz, %18ak pentsatzen du lekuko euskara erabili behar dela, %14ak euskara batua, eta %3ak ez daki galdera honi erantzuten.

Galdera honentzat ere, hiru herrien erantzunak desberdintzen dira. Alabaina, Senperen, gehiengoak, %67ak, dio irakaskuntzan lekuko euskara eta batua erabili behar direla, gaur egun egiten den bezala. %21ak dio euskara batua erabili behar dela, eta %13ak lekuko euskara. Baigorriin, %42ak dio lekukoa eta batua erabili behar direla, %29ak lekuko euskara, %21ak euskara batua, eta %8ak ez daki galdera honi erantzuten. Maulen, gehiengoak, %71ak, dio Zuberotarrari garrantzi handiena eman behar zaiola, batua ere pixka bat sartuz, gaur egun Zuberoan egiten den bezala. %17ak dio lekukoa eta batua erabili behar direla maila berdinean, eta azkenik, %13ak dio lekuko euskara baizik ez dela erabili behar irakaskuntzan. Orduan, konturatzen gara barrualdera joanez geografian, jende gehiagok lekuko euskara sartu nahi duela irakaskuntzan.

3.1.10 Erabiltzen ote duzu euskara batua? (euskara batua badagoela dakitenei zuzendutako galdera)

Elkarrizketatutako pertsonen gehiengoak, %54ak, euskara batua ez du inoiz erabiltzen. Halere, multzo handi batek erabiltzen duela agertzen da.

3.1.11 Noiz erabiltzen duzu euskara batua? (euskara batua erabiltzen dutenei zuzendutako galdera)

Euskara batua erabiltzen duten pertsonen artean, gehiengoak, %70ak, erabiltzen du Hegoaldekoekin hitz egiten duenean.

3.1.12 Gauza ona dela uste duzu euskara batua izatea? (euskara batua dagoela ez dakitenei zuzendutako galdera)

Euskara batua badagoela ez dakitenen artean, gehiengoak, %85ak, dio gauza ona dela euskara batua izatea.

3.1.13 Ulertzen duzu euskal telebistako euskara? (euskara batua dagoela ez dakitenei zuzendutako galdera)

Euskara batua badagoela ez dakitenen gehiengoak telebistako euskara gutxi gora behera ulertzen du. Alabaina, %46ak ulertzen du, %31ak pixka bat, %15ak gutxi gora behera, eta azken %8ak ez daki ulertuko lukeen edo ez, euskal telebista ez duelako inoiz begiratu.

Euskara batua badagoela dakitenen artean, %59ak ulertzen du.

%44ak euskal prentsa gutxi gora behera ulertzen du.

Maulen, gehiengoak, %71ak, dio Zuberotarrari garrantzi handiena eman behar zaiola, batua ere pixka bat sartuz, gaur egun Zuberoan egiten den bezala.

Senpere eta Mauleko pertsonak diote euskara batua beharrezkoa dela ulermenerako, aldiz Baigorrikoak dio ez dela beharrezkoa.

3.2 Euskaraz hitz egiten ez dakitenen pertzepzioa

Hiru herrietan elkarrizketatutako hiru pertsonen artean, desberdintasun handirik ez da agertzen erantzunetan. Halere, Baigorriko pertsona, zenbait erantzunetan desberdintzen da, Senpere eta Mauleko pertsonen erantzunak berdina direlarik galdera guztietan. Alabaina, Senpere eta Mauleko pertsonak diote euskara batua beharrezkoa dela ulermenerako, aldiz Baigorrikoak dio ez dela beharrezkoa. Bestalde, Senpere eta Mauleko pertsonak diote beharrezkoa ikusten dutela euskara batua izatea, eta Baigorrikoak ez daki galdera honi erantzuten. Beste galderetan, hiru pertsonak erantzun berdina eman dituzte.

3.3 Kolegioetako inkestak

- Bi kolegioetako ikasle guztien artean, gehiengoak, %95ak, badaki euskara batua dagoela.
 - Lartzabalen eta Ziburun, kontrako emaitzak agertzen dira. Lartzabalen, ikasleen gehiengoak, %69ak, ez du entzuten jendea batuaz hitz egiten herrian. Ziburun aldiz, gehiengoak, %65ak, entzuten du. Guztira, %52ak entzuten du jendea batuaz hitz egiten herrian, eta besteek ez dute entzuten
 - Ikasleen gehiengoak dio euskaldun berriek eta Ikastolatik etortzen diren gazteek dutela batuaz hitz egiten herrian. Halere, Lartzabaleko ikasle batzuk erantzun dute inork ez duela batuaz hitz egiten herrian.
 - Guztira, %59ak dio euskara batua beharrezkoa dela elkar ulertzeko.
 - Ikasle guztien artean, gehiengoak, %76ak, euskara batua ulertzen du.
 - Guztira, ikasleen %67ak Euskal Telebista ulertzen du.
 - Guztira, ikasleen %49ak beharrezkoa ikusten du euskara batua izatea.
 - Lartzabaleko ikasleen gehiengoak, %54ak, etxeko euskara erabiltzen du kolegioan, aldiz Ziburuko ikasleen %54ak, biak, batua eta etxeko euskara erabiltzen ditu. Ziburuko ikasle gehiagok batua erabiltzen du kolegioan. Guztira, ikasleen %46ak biak erabiltzen ditu.
 - Ikasle guztien artean, gutxi gora behera erdiak dio kolegiotik kanpo euskara batua erabiltzen duela etxeko euskaraz gain. Hemen ere, bi kolegioen artean desberdintasunak agertzen dira erantzunetan. Lartzabaleko ikasleen gehiengoak, %63ak, kolegiotik kanpo euskara batua ez du erabiltzen. Ziburun aldiz, gehiengoak, %60ak, erabiltzen duela dio.

4. ONDORIOAK

I

4.1 Euskaldun zaharren artean

- Lekukoen gehiengoak badaki euskara batua dagoela. Konturatzen gara Ikastolarekin lotuak diren pertsona guztiek (Ikastolatik pasatu direnak, edo familia Ikastolan dutenak) badakitela. Horrez gain, azpimarratzekoa da Zuberoan elkarrizketatutako lekuko guztiek badakitela. Suposatu dezakegu haien euskara hainbeste desberdintzen den besteengandik, denek badakitela gutxi gora behera euskara batua zer den, elkar ulertzeko tresna bat delako.
 - Lekukoen gehiengoak ez du entzuten jendea batuaz hitz egiten herrian. Senperen du jende gehienak entzuten, eta Maulen gutxienak. Suposatu dezakegu arrazoa dela Senpere kostaldetik eta mugatik gertu dagoela, eta han batua gehiago entzuten dela, Hegoaldeko jende gehiago etortzen delako. Maule aldiz, barrualdean kokatzen da, kostaldetik urrun, mendietan, eta euskara batua oso gutxi erabiltzen eta entzuten da.
 - Ipar Euskal Herrian, askok euskara batua irakaskuntza munduari lotzen dute, bai eta ere gazteen hizkerari.
 - Senperen du jende gehienak pentsatzen euskara batua beharrezkoa dela elkar ulertzeko, eta Maulen gutxienak. Pentsatu dezakegu arrazoa geografiari lotua dela. Senpere kostaldetik eta mugatik gertu dago, eta hango jendeak ohitura gehiago du euskara batua entzutea, eta erabiltzea Hegoaldeko jendearekin hitz egiteko. Maule aldiz, barrualdean da. Halere, desberdintasun hori arrazoi linguistikoetatik etor daiteke. Zuberera beste euskalkietatik asko desberdintzen da. Halere, inkesta honetan lekukoekin hitz eginez, konturatu gara zuberotarrek “ manexak “ (Behe-nafarrak) ulertzen dituztela arazorik gabe, bai eta ere Hego Euskal Herriko jendea gutxi gora behera, nahiz eta besteek zuberotarrak ulertzeko zailtasun handiak dituzten. Orduan, baliteke horregatik ere zuberotar askok pentsatzen dutela euskara batua ez dela beharrezkoa elkar ulertzeko.
 - Ikastolatik pasa diren guztiek edo familia Ikastolan dutenek euskara batua hobeto ulertzen dute. Askok diote haien haurrak edo haur txikiak Ikastolan direnez, haien bidez ikasten dutela euskara batu pixka bat, batez ere hiztegia.
 - Baigorri eta Senperen, gehiengoak dio batua euskara zuzena dela, aldiz Maulen, gehiengoak ez daki erantzuten. Maulen, jendeak ez du Baigorri eta Senperen bezainbat aukera euskara batua entzuteko. Orduan, askok ez dutenez inoiz entzun euskara batua, edo oso gutxitan, ez dute jakin galdera honi erantzuten.

***Senpere
kostaldetik eta
mugatik gertu
dagoela, eta han
batua gehiago
entzuten dela,
Hegoaldeko jende
gehiago etortzen
delako. Maule
aldiz,
barrualdean
kokatzen da,
kostaldetik
urrun,
mendietan, eta
euskara batua
oso gutxi
erabiltzen eta
entzuten da.***

Zuberotarrek ez dituzte haien berezitasunak galdu nahi, eta mesfidantza erakusten dute euskara batuari buruz. Batua beharrezkoa ikusten dutenek aldiz, idatziari, komunikabideei, ulermenari eta irakaskuntzari lotzen dute.

- Maulen, beste bi herrietan baino jende askoz gehiagok ez du beharrezkoa ikusten batua izatea. Maulen, beste bi herriei konparatuz, jendeak ez du aukera asko euskara batua erabiltzeko, eta Zubererarekin moldatzen dira haien artean. Bestalde, zuberotarrek ez dituzte haien berezitasunak galdu nahi, eta mesfidantza erakusten dute euskara batuari buruz. Batua beharrezkoa ikusten dutenek aldiz, idatziari, komunikabideei, ulermenari eta irakaskuntzari lotzen dute.

- Irakaskuntzaren aldetik, konturatzen gara geografian barrualderago joanez, jende gehiagok nahi duela lekuko euskara erabiltzea. Lehenago aipatutako arrazoi geografikoei lotua dela suposatuz dezakegu, baina arrazoi linguistikoei ere. Zuberoan, jendeek nahi dute Ikastolan zuberera erabiltzea, mozturarik ez izateko aurreko belaunaldiekin hizkera mailan.

4.2 Euskaraz hitz egiten ez dakitenak

Inkesta honetan, ondorio adierazgarriak ez da atera.

4.3 Kolegioetan egin inkestak

- Lartzabalen, ikasle gehienek ez dute entzuten jendea batuaz hitz egiten herrian, aldiz Ziburuko ikasle gehienek entzuten dute.
 - Lartzabalen, ikasle gehienek etxeko euskara erabiltzen dute kolegioan, aldiz Ziburun, gehienek biak, lekukoa eta batua erabiltzen dituzte.
 - Lartzabaleko ikasleen gehiengoak, kolegiotik kanpo euskara batua ez du erabiltzen, aldiz Ziburuko ikasleen gehiengoak erabiltzen du.

Hiru emaitza hauek ikusiz, ondorioztatu dezakegu emaitza hauek ere, lehenago aipatutako arrazoi geografikoei lotuak direla. Ziburun, kostaldean eta mugatik gertu izanez, ikasleek Lartzabalen baino aukera gehiago dute euskara batua erabiltzea eta entzutea.

5. ONDORIO OROKORRAK

Ikerketa lan honen bidez, ondorio nagusi batzuk atera ditzakegu euskara batuaren pertzepzioari buruz Ipar Euskal Herrian. Lehenik, orokorrean jendeak euskara batua nahiko ongi ikusten duela argi da. Gero, konturatu gara faktore sozialek ez dutela eragin handirik pertsonen iritzietan. Geografiak eta pertsona bakoitzaren ingurumenak (Ikastola, etab.) dute eragin handiena. Azkenik, ikerketa lan hau batez ere

kuantitatiboa izan da, eta etorkizunean, alde kualitatiboak sakonago aztertu beharko lirateke. ●

OHARRA

1. Artikulu hau Master Amaierako Lanaren laburpen bat da. Gasteizko letren fakultatean (UPV-EHU) aurkeztua izan zen 2013ko ekainean. Gotzon Aurrekoetxea Olabarri izan da ikerketa lan honen zuzendaria. Artikulu honetan, ikerketa lanaren puntu eta emaitza garrantzitsuenak baizik ez dira agertzen.

BILBIOGRAFIA

- Coyos, Jean-Baptiste, 2004, "Batua eta zuberera: euskalki baten dinamika", http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/05/24/28/PDF/2004_Erabili.com_Bilbo_batua_eta_zuberera_.pdf [15-X-12].
- Davant, Jean-Louis, 1996, "Euskalkien eta euskara batuaren arteko harremana nolakoa den Iparraldean", *Euskera* 41-42, 531-539.
- Eusko Jaurlaritzak, 2006, *IV. inkesta soziolinguistikoa*, Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritzak, 2011, *V. inkesta soziolinguistikoa*, Vitoria-Gasteiz.

***Irakaskuntzaren
aldetik,
konturatzen gara
geografian
barrualderago
joanez, jende
gehiagok nahi
duela lekuko
euskara
erabiltzea.***